

AZ
TAR
NAK



DURANGALDEA IZAN ZEN 1936. URTEKO UZTAILAREN 18AN FRANCO JENERALAK HASITAKO GERRAREN ONDORIO LATZENAK JASAN ZITUEN BIZKAIKO ESKUALDEA. ARABA MATXINATUEN ALDE AGERTZEAK ETA MOLA JENERALAK GIPUZKOA 1936KO ABUZTUAN ETA IRAILEAN HARTZEAK, GERRAKO FRONTEA DURANGALDEAREN MUGETAN JARRI ZUEN.

OTXANDIO IZAN ZEN 1936KO UZTAILAREN 22AN LEHENENGO BONBARDATU ZUTEN HERRIA, 57 HILDAKO UTZIZ, GEHIENAK ZIBILAK.

DURANGOK ERE JASAN ZITUEN GERRAREN ONDORIOAK URTE HORRETAN. IRAILAREN 25EKO BONBARDAKETAK 12 PERTSONA HIL ZITUEN. HURRENGO URTEAN IZAN ZEN BONBARDAKETA HANDIA,

1937KO MARTXOAREN 31KOA.ERASOA GOGORATU ETA UTZI ZITUEN
AZTARNAK EZAGUTZEKO AUKERA EMATEN DIZUN IBILBIDE HAU EGITERA
GONBIDATZEN ZAITUGU.

ELORRIOK ERE AIRE ERASOAK JASAN ZITUEN. MARTXOAREN 31KO
BONBARDAKETAZ GAIN, FRONTETIK GERTU IZATEAK TARTEKA-MARTEKA
ELORRIARREK ETA BERTAN ERREFUXIATUTA ZEUDENEK ONDORIO
TRAGIKOAK JASATZEA ERAGIN ZUEN.

BIZKAIKO FRONTEAREN AURKA HASITAKO ERASOALDIAK GERRAKO PASARTE
TRISTE EKARRI ZITUEN: SAIBIGAINEN ETA INTXORTAKO BORROKAK,
ETA 1937KO APIRILAREN 28AN DURANGO HARTZEA.

AZ TAR NAK DURANGO





- 1 KURUTZIAGA KALEA
- 2 KOMENTUKALEA
- 3 ANDRA MARIA KALEA
- 4 EZKURDI PLAZA
- 5 ETXEZARRETA JAUREGIA
- 6 NEVERS IKASTETXEA

TESTU INGURUA 1937

1 937ko martxoaren 31n, asteazkena, Mola jeneralak ofentsiba hasi zuen Otxandio eta Ondarroatik, Asturiasera zabaltzen zen Iparreko Frontea ezabatzeko helburuarekin. Nafarroako brigadak (karlistak) izan ziren Otxandiotik gertuen zegoen frontearen aurkako erasoa hasi zutenak. Euren helburuetako bat Urkiola hartzea zen.

7:00etan, bost italiar hegazkin bonbaketari –Savoia 81– Sorian airea hartu zuten Durangorantz eta bonbardaketa goizeko 8:30ean hasi zuten. Alarmak minutu batzuk arinago jo zuen, baina jendeak erreakzionatu zuenerako, hegazkinen erasoa hasita zegoen.

Lau minututan bakarrik lau tona leherkari jaurti zituzten populazio zibilaren kontra.





Hegazkinek bonbardaketa Kurutziaga kalearen amaieran hasi zuten eta Andra Marirako bidea hartu zuten gero. Ibilbide honi esker, pilotuek eguzkiari bizkarra emanda basilikaren dorrea erreferentzia modura erabili zuten.

Lehenengo bonbak Kurutziaga eta Musiko Altuna kaleen elkargunean jausi ziren, egun Kurutzesantu Museoa den ermitaren aurrean. Metrailek kalteak eragin zituzten kalearen alde bietako eraikinetan eta Kurutziagako gurutzea ere bota zuten.

AREITIO JAUREGIAN METRAILA AZTARNAK

KURUTZIAGA KALEA





Bonbak Kurutziaga kalean zehar jaurti zituzten eta Jesuiten San Jose eliza ere jo zuten. Momen-tuan mezatan zeuden 27 pertsona hil ziren. Ikaste-txeak ez zuen kalterik izan, nahiz eta EAJ- PNVren Kirikiño batailoia-aren egoitza izan.

Kalearen beste aldean bonba batek Santa Susana komentuaren atzealdea jo zuen eta 13 moja eta behargin bat hil ziren. Batailoi sozialistak bere egoi-tza lez erabiltzen zuen.

SANTA SUSANA KOMENTUAREN AURREALDEA

KOMEN TUKALEA





Andra Maria kalean, denboran iraun duen bonbardaketaren irudia basilika ingurukoa izan da. Egun horretan, portikoan merkatua zegoen, Merkatu Plaza automobilen batailoiko garajea zelako. Hauer ere bonbardatu zuten. Gainera, bonbardaketa orduan elizkizuna zegoen eta biktimen kopurua altua izan zen.

17:45ean, Durango berriro bonbardatu zuten. Izaera estrategikodun lekuak izan ziren, esaterako, Durangoko tren geltokia eta inguruko tailerrak.

Egun honetako bonbardaketak 336 hildako utzi zituen, metrailaketengatik eta 3.140 kilo bonben eraginez.

BONBARDAKETAN HILDAKOEI OROIGARRIA ANDRA MARIAN

ANDRA MARIA KALEA





Durangoko lehen bonbardaketa 1936ko irailaren 25ean izan zen. Gasteiztik etorri ziren hegazkinak, lau bonba jaurti zituzten urian. Horietako bat Ezkurdiko frontoian jausi zen, Gipuzkoatik ihes egindako errefuxiatu eta miliziano talde bat pilotan jokatzen ari zela. 12 hildako eta hainbat zauritu eragin zituen erasoak.

Bonbardaketaren ostean, sututa, Ermodo kalean zegoen kartzelara jo zuen miliziano talde batek. Us-tez erreketeen aldekoak izateagatik preso zeuden 22 atxilotuak atera eta kanposantura eraman zituzten. Fusilatu egin zituzten, aurre epaiketarik gabe.

EZKURDI FRONTOIAN METRAILA AZTARNAK

EZKURDI PLAZA





Gatazkak iraun zuen urteetan, Durangoko hainbat eraikin okupatu zituen errepublikar ejerzitoak, besteak beste, San Frantzisko komentua, Merkatu Plaza edota Etxezarreta Jauregia. Azken honetan, martxoaren 31ko erasoaren ostean ospitalea egoitu zen eta fronteetan zauritutako milizianoak artatzen zituzten.

Gaur egun Durangoko Arte eta Historia Museoaren egoitza da, eta gerra sasoiko maketa eta elementuak erakusten dira.

HEGAZKIN BATEN MAKETA

ETXEZA RRETA JAUREGIA





1 937ko apirilaren 28an, Durango jausi zenean, 14 zenbakidun langileen batailoiko lehen konpainia-ko presoek kartzela bihurtu zuten. Herria atontzen egiten zuten lan. 1940ko urtarrilean, eta urtebetez, emakumeek kartzela ere izan zen eta faszistek Bizkaia menpean hartu zutenean, egoera penagarrian giltzapetu zituzten preso politiko eta arruntak. Bost emakume eta bost ume hil ziren kartzelan.

Kartzela itzi zenean, emakume guztiak beste kartzeletara eramán zituzten; Amorebieta eta Saturrarera –guztiak erlijio-ordena baten jabegokoak–, eta Bilboko Orue txaletera.

KARTZELAREN JATORRIZKO SARRERA

NEVERS IKASTETXEA



AZ TAR NAK

DURANGALDEA



© Luis Medina

ELORRIO

Militarizatutako biztanleak ziren nagusi Elorrion eta Jara Jauregian Komandantzia ezarri zuten. Militarizaerarekin batera, esanguratsuak izan ziren ekitaldi politikoak (Lehendakaria zen Jose Antonio Agirreren bisita esaterako) eta historia sozialak (Gipuzkoatik ihes egiten zutenen helmuga) izan ziren. 1937ko martxoaren 31n Elorrio ere bonbardatu zuten.

**ELORRIO, 1937. GREAVES-TARREN ETXEA
BONBARDAKETAREN ONDOREN.**

BERRIZ

Berrizek eta bere alkate Felix Uriagak irudikatzen zuten ondoen frankismoaren errepresioa. Fusilatu egin zuten, "iraultzaren laguntzailatzat" jo zituzten herriko bi langile foralekin batera.

ZALDIBAR

Zaldibar exiliatuen zorigaitza ondoen irudikatzen duen herria da. Gerratik ihesi, Gipuzkoatik heldutakoak, aintzinako bainuetxean, hotelean eta etxe partikularretan hartu zituzten. Herriaren populazioa hiru-koiztu egin zen.

SAIBIGAIN MENDIA

Saibigaineko borroka “mendi odoltsua” izenarekin gogoratzen dute, erresistentzia handia izan zelako leku honetan Frankoren tropek Durangaldea, eta Bizkaia ere, hartzea gelditzeko ahaleginean.

MAÑARIA

Durangaldeko azken borroka Mañarian izan ziren. 500 biztanle inguru dituen herri txiki honen geolokalizazioagatik, ia isolatuta, Francoren erasoari 24 egunetan egin zieten aurre.

OTXANDIO

Durangaldeko lehen erresistentzia Otxandio izan zen. Gerraren hasiera Durangaldean eta lehen kolpea: 1936ko uztailaren 22an Otxandioko bonbardaketa.



“[...] AITA SANTUA ZEN BERE AZKEN ESERANTZA;
ETA AITA SANTUAK, BETI GURTUTAKOA ETA BERE BABESEAN
KONFIANTZA IPINITAKOA, EZ ZUEN EZER ESAN;
AITA SANTUAK EZ ZUEN KONTSOLAMENDURIK IZAN
HAINBESTE SEME-ALABA NAHIGABETURENTZAT, EZTA
GAITZESPENIK ERE HAINBESTE HILTZAILERENTZAT [...]”

JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN. EGUNEROKO PERTSONALA. 1937KO EKAINAREN 26A.



Durangaldeko Adiskideen



JASOTAKO ARGAZKIAK

Gerediaga elkarteko Dokumentategia

Sabino Arana Fundazioa

Ricardo Doliwa Fondoa

German Zorraquin Fondoa

Luis Madina

GAUR EGUNEKOAK

Txelu Angoitia

